



Iparraldeko kristau lagun maiteok! Koldo Katxo jesuita naiz, Nafarroako Tuteran sortua eta, bait bat, nire apostolutza tokiak 3 izan dira: Frantses Jatsukoaren gaztelu ondoko ikastetxea, Donostiako san Ignazio ikastetxea eta Altza auzoko parrokia, eta Bizkaiko Durangoko jesuiten ikastetxea. Joan den ikasturtetik hemen Loiolan daukat elkarte eta misioa.

ONGI ETORRI BIHOTZ-BIHOTZETIK Loiolako santutegira, oraindik IGNAZIOATAR URTEA OSPATZEN ARI GARELARIK.

Nola hasi zen urte edo 500 urteurren hau:

2021ko maiatzaren 20an hasiera eman genion **Loiolako Iñigoren bihotz-berritzearen edo konbertsioaren 500. Urteurrenari eta bukaera** uztailaren 31an ospatuko dugu hemen Loiolako Basilikan. Zergatik hasi genuen urteurren hau Iruñeko katedralean? Jesusen Lagundiak Iñigo zauritua gertatu zen hiritik abiatu nahi izan zuelako. Jakina denez, Loiolako Iñigok Iruñeko gaztelua defenditzen zuen nafar-franko armada aipatu gaztelua berreskuratzen ahalegintzen ari zelarik. Armada horretan Frantses Jatsukoaren, (Hego Euskal Herrian Xabierko Frantzisko), bi anaiak, Joan eta Migel omen zeuden. Denek badakite Xabiertarrak Nafarroako erregeen aldekoak zirela eta Erresuma zaharraren independentzia azkenera arte defenditu zutela.

Iñigori kanoikada batek hautsi zion zango bat eta bestea zauritu. Loiolako dorre-etxe honetara ekarri zuten. Duela gutxi jakin dugu Xabiertarren lehengusu bat, Zuastiko Esteban, arduratu zela Iñigo zauritua Iruñean sendatzen eta ekartzen Gipuzkoara. Ondoko dorretxean bederatzi hilabeteko bizkorraldi luze eta gogor baten erdian **bizitza aldaketa osoaren hasiera** gertatu zitzaion.

Bere **autobiografia jakingarrian** (aukera ona urte honetan zehar irakurtzeko) esplikatzen duen bezala, bi espiritu, bi indar bat bestearen kontrakoak hautemaiten zituen bere barruan. Berak, oso zorrotza izanik barneko ezagutzan, topatu zuen bata **espiritu gaiztoarena zela eta bestea onarena**. Gaiztoarenak bultzatzen zuen “munduko ohorea eta arrakasta” lortzera, eta onarenak, Jesu Kristok eta santuen bizitzak erakarrita, haiek eraman zuten bezalako bizitza burutzera. Azken honetaz pentsatzen zuelarik pozak eta alaitasunak luze irauten zuen bere baitan . Besteaz pentsatzean harrotu egiten zen baina berehala hutsik geratzen barrutik.

Honela, inori ezer esan gabe, nahiz eta etxekoek sumatu berarengan aldaketa bat eta aurka egin, **Lur Santura** erromes joateko hautua hartu zuen. Loiolatik atera zenean penitentzian bizitzeko aukera bakarra ikusten zuen bere gazte denborako bekatu guztiengatik. Baina Jainkoak beste bide diferente batetik eramango zuen. **Manresan** gogo-jardunak (espiritu ejerzizioak exercices spirituels) egiten eta idazten hasi zen eta baita **besteei laguntzeko deia** sentitu ere. Baina hori guztia Jerusalemengingoen, Jesu Kristorengandik gertuago egonik. Baina han bertan egotea debekatu ziotelarik, bere asmoak ankaz gora erori zitzaizkion eta **Jainkoaren nahiaren bila** berriz hasi behar izan zuen. Bere bizitza osoan hori izan zen zuen betiko helmuga, baita gauza guztietan **Jainkoaren aintzarik osperik handiena** bilatzea ere. AMDG

Baina hori guztia besteak zerbitzatuz ulertzen zuen; horretarako ikastera jo beharra ikusi zuen, hasieran eskolako gaztetxoekin,

gero hainbat unibertsitatetan,-bururatzeko Pariseko Sorbonan. Han bildu zuen **Jesusen Lagundiaren sortzaileen taldea**. Europako gazte intelektualez osatua, eta besteen artean Nafarroako Frantses Jatsukoa, **Xabierko Frantzisko**. Jakina denez, bion familiak etsai politikoak izan ziren. Zalantzarik gabe historia mingarri hori bizirik egonen zen Ignazioaren eta Frantziskoren arteko hastapeneko harreman zailen azpian.

Iñigok Pariseko Sorbonan Ignazio izena hartzen du Antiokiako san Ignazio martiriari izena hartuz. Hainbat pertsonari gogojardunak (ejertzizio espiritualak) ematen hasten da, Jainkoaren nahia aurkitzen, txerkatzen, laguntzeko eta Jesu Kristori jarraitzeko. Unibertsitateko gazte horiek, **bereizmen edo dizernimenduaren bidez**, Jesusen Lagundia sortzea erabaki zuten, Jainkoaren nahia betez, Elizaren eta herrien zerbitzatzeko, **ekintza espiritualen eta sozialen bidez**.

Bere konbertsioaren ondorio edo tresna berezia **Gogo Jardunak** izan zituen, ignaziotar erara manerara noski. Horrela **ignaziotar espiritualtasuna** garatzen joan da gaur arte. Altxortzat dauzkagu askok eta askok; horregatik, urteurren honetan aukera paregabea dugu, mundu korapilatsu eta kolpatu honetan, bide horretara hurbildu eta bera sakontzeko, **Jesus Jauna gehiago maitatzeko eta jarraitzeko, eta mundua eraldatzeko. Gauza guztiak Kristogan beti berri ikusteko**.

Guk ere gure zauriak ditugu Iñigok bezala. Hala ere zauriak ez zuen eraman isolamentura, depresiora edo lehenagoko hutsen-errakuntzen errepikatzen. Zauriak bere bizi-ikuspuntua aldarazi zion, eraldatu, kanbiatu zion geroko begirada. Zauriak aldakuntza prozezu bati atea ireki zion. Misteriotsuki eta urratsez-urrats hasi zen “gauza guztiak Kristogan beti berri ikusten”. Lehen, gauza guztiak bere aberastasun gosez eta xilkokeri egoaren- ezinezko aments zorotik ikusten zituen, kanpoko azalezko itxura itsutik eta arrakasta eta ohore pertsonaletik beti irabazi, garaitu eskatzen duenetik. Bere begirada, izate eta biziera aldaketa guzi honi **KONBERTSIOA** deitzen diogu. Bere autobiografian, azken

urteetan idatzia, Ignaziok kontatzen digu nola Jainkoak, pazientzia, pairamen handiz, eramaten zuen bere nahiaren bila gelditu gabe aurkitzera. Ibilaldi horri esker jakitatea ~~lortzen~~ kausitzen dugu gure bizia seriooki hartzeko eta sakonki aukeratzeko, hautatzeko Jainkoari, munduari eta gure buruari begira. Urte honetan zehar ospatu duguna bere konbertsioaren hasiera izan da. Aldakuntza espiritual hau hiru zutabetan oinarritzen da, oso gaurkoak direnak, ene ustez:

1. **Zauri sendatua:** asko hitz egiten da ZAURGARRITASUNAZ, bulnerabilitateaz, pandemian sufritu dugu eta orain Ukrainako guduan. Ahultasuna ~~ahultasuna~~ izaitea onartu behar dugu baina baita ahultasunetik lan egin jakin behar dugu, hortxe kokatzen delakotz hobeki norberaren zinezko barnea eta Jainkoaren grazia. Eta ez gara betiko zaurituta gelditzen: sendatzea dago, barkamena dago norberaren ganik haratago.
2. **Bide espirituala:** Ignazio isilik eta lasai altxatzen da espiritu maisu bezala espíritu bidexka erakusten diguna non guk gure buruak miraila batean bezala ikusten ahal ditugun eta berpiztuak gure bidexka atxeman eta urratu ahal izateko. Egungo eredu edo modelo izaten ahal da bakotxaren sentimenduei begiratzen dielako eta baita barneko eta kanpoko amarruak, lotguneak edo engainuak argitzen laguntzen digulako. Egon eta bizi isiltasun espiritual horren erronka desafioa da gure kristau fedean hazten laguntzen ahal diguna.
3. **Esperintzia osoa:** konbertsioak eramaten du bere onena ateratzera. Bere zorionak Jesu kristoren Jainkoarengana, besteengana eta bere buruarengana abiatzen du bere bizitza. Horretara doaz Gogojardunak, norberaren jitea, nortasuna, eraldatzera kanbiatzea , bakotxaren baitako haustura batzera.

4. **Izate irekia:** Ignazioren ibilbidea, heltzen doan heinean, elkartasunezkoa bihurtzen da, komunitarioa, ~~zabalik~~ beste pertsoneri zabalik. “Bakarrik eta oinez” bere perfekzio bila joatetik arimak laguntzera, behartsuen bidelagun izatera. Gehiago maitatzeko eta zerbitzateko munduan eta elizan.

Horrela egin zien aurre zauriei sendatzeko, bide espiritual sakona eginez, “gauza guziak Kristogan ikusten” konbertsio bidean irekitzen besteei eta zetorren mundu berri bati.

Horretara deituak gara denok, laikoak, erlijiosoak, apezak, apezpikuak ere, apalki elkarrekin bidea eginez, SINODO ERAKO ELIZAREN ALDE.

Anai-arreba maiteok bukatu nahi dut luze xamar den prediku hau **Fernando Aire Etxart “XALBADOR”, mistiko-artzain-bertsolari-mistikoa aipatuz.**

lazko azaroaren 7an, **45 urte** bete ziren zendu zela.

Neureztat profeta izan zen **Jainkoaren elizaren fedean** eta salaketan, profeta euskal herritarren **arteko borrokaz** ohartarazteko, profeta **euskararen** galtzeaz. Honen inguruan gogora ditzagun, hiru bertsoaren bidez, bere salaketak **NIGARRA BEGIAN** bertso sorta antologikoan:

“Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun munduan zabaltzerat zerbait alaitasun; ez dakit beti danik zer gaitik naukazun **gutarteko berri txar guzien oihartzun.**

(...)

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian, gurerik deus ez duen hizkuntza mihian, sofritzen egoiten naiz horien erdian, **gutaz ahalgetua, nigarra begian.**

(...)

O, entzule maitea, otoi, barkamendu, ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu! Jostetako gogoia dautate kendu, **aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.”**

Baina aukeratu dut hurrengo bertsoa, azpimarratzeko Xalbadorren fede bilakaera sakona eta baliosa. Loiolako Iñigori etxe honetan sentitzen hasi zitzaiona, hain zuzen. Bertan azaltzen baitu Jainkoarekiko bere harreman mistikoa, maitasunezkoa, lagunkoia, konfiantzazkoa eta egiazkoa: Jainkoa eta ni pertsoetarik hartua.

“Zure **laguna** eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurrak eman nau **fidantzi**az beterik; (behako=begirada)
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen **amodioaz besterik**.”